Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Emeterio Elkoroberezibar Odriozola

Bergara, Gipuzkoa (1931)

Aurkibidea

Biografia

San Lorentzo auzoko Zubikoa baserrian jaio zen. Aita bertakoa zen eta ama berriz, Oñatiko Aixkirri baserritik etorritakoa. Hamazortzi urte arte eskolatu zen, Bergarako marianista, San Viator eta dominikoen ikastetxeetan. Harrezkero baserrian geratu zen, familiaren baratzezaintza jarduerari jarraipena ematen. Orturako landareak eta ortuko gauzak landu eta saltzen zituzten Zubikoakoek. Inguruko herrietako azoketan ezaguna zen Zubikoako produktuen kalitate ona. Urbanizazioa zela eta, baserri zaharra bota egin behar izan zuten, eta errekaren beste aldean eraiki zuten berria. Baratzezaintzan eta azoketan salmentan jardun du Emeteriok ia bizi guztia, eta jarduera hauetaz hainbat kontu interesgarri kontatzen ditu.

Zintak

BER-286

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Data**: 2010-12-15
- **Iraupena**: 71 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Emeterio aitajaunak eman zien hasiera baratze-lanei

- **Erref**: BER-286/002
- **Iraupena**: 0:02:48. **Hasi**: 00:00:07. **Bukatu**: 00:02:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:
Aitajauna, hura ere Emeterio, izan zen Zubikoa baserrian baratze-lanetan jardun zuen lehenengoa. Fruta-arbolekin ere lan egiten zuen. Oso ona ei zen txertaketan; sari bat ere irabazi zuen sagar mentu batekin. Seme zaharrenak jarraitu zuen baratzeko lanekin, baina gazterik hil zen tifusaren ondorioz. Emeterioren aita Donostiako Urbana hoteleko sukaldari nagusia zen. Anaia hil zenean, hotela utzi eta baserrira itzuli zen. Emeteriok familiako jarduerarekin segitu zuen.

2. Zubikoa baserriaren historia

- **Erref**: BER-286/004
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 00:03:27. **Bukatu**: 00:04:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:
Zubikoa baserrian jaio zen Emeterio. Zubiaren ertzean zegoen baserri txiki bat zen. Esaten zuten etxe hura abadearena zela garai batean, izan ere zubiaren beste aldean Santo Tomas ermita omen zegoen. Ermita uraldi batek eraman zuela esaten zuten. Abadeak alde egin zuenean, aitajaunaren aita eta familia (Elkoroberezibar familia) joan ziren Zubikoara bizitzera.

3. Elkoroberezibar abizenari herentzia

- **Erref**: BER-286/005
- **Iraupena**: 0:03:32. **Hasi**: 00:04:49. **Bukatu**: 00:08:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Aitajauna eta lau arrebak gazterik geratu ziren aita gabe. Aitajaunak kontatzen zuen gertaera bitxia: Abadiñora azokara joan zen batean, Elgetan geldialdia egin zuen eta lagun batek esan zion Elkoroberezibar abizena zutenentzat deialdi berezi bat zegoela udaletxean. Antza denez, norbaitek herentzia utzi zuen lehen abizena Elkoroberezibar zutenentzat. Aitajaunak 18.000 erreal jaso zituen orduan.

4. Aitajaunak egin zuen Zubikoa baserri berria

- **Erref**: BER-286/007
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:08:36. **Bukatu**: 00:09:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:
Aitajaunak herentzian jasotako diruarekin lur-sailak erosi zituen eta baserria egin zuen lehengo etxearen aldamenean. Gerra sasoi ingurua izango zen. Emeterio mutikoa zen artean, baina zerbait gogoratzen du.

5. Bergaran ermita ugari

- **Erref**: BER-286/009
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:10:55. **Bukatu**: 00:12:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
Bergaran ermita asko egon direla dio: San Blas, San Fausto, San Anton Abad, Santa Engrazia, San Lorentzo, Santa Luzia... Batzuk ez zituen berak ezagutu; beste batzuk moldatu egin ziren (ermitaren ordez santutxoa ipini, adibidez). Auzo bakoitzak bere ermita.

6. Elizak ermitak auzotarrei saldu zizkien

- **Erref**: BER-286/010
- **Iraupena**: 0:03:07. **Hasi**: 00:12:45. **Bukatu**: 00:15:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:
San Kristobalgo ermitaren eskriturak dauzkala aipatzen du. Antza denez, San Pedro elizak auzotarrei saldu zien ermita, diru truke. Auzo gehiagotan ere auzotarrak ageri dira jabe moduan eskrituretan. Artxiboetan arakatzen ibili izan da eta uste du elizak Mendizabalen desamortizazioaren aurretik salduko zituela ermitok.

7. Barazkiak eta ortuko landareak nora saltzen zituzten

- **Erref**: BER-286/012
- **Iraupena**: 0:03:17. **Hasi**: 00:16:10. **Bukatu**: 00:19:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:
Zubikoan barazki mota guztiak izaten zituzten ortuan. Bergarako azokaz gain, inguruko herrietara ere eramaten zituzten saltzera: Eibar, Oñati, Elgoibar... Arrasatera ez, bertan ortuzain oso onak zeudelako. Alearekin batera landareak ere saltzen zituzten. Kopuru handia behar zutenak etxera etortzen zitzaizkien erostera. Gerora "rebendedoreak" azaldu zirela dio. Gasteizera landare asko bidaltzen zuten trenean, han saltzeko.

8. Etxekoez gain, bi neskame eta bi morroi lanerako

- **Erref**: BER-286/013
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:19:27. **Bukatu**: 00:21:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Zubikoa baserrian gurasoek lan egiten zuten baratzean eta baita beraiek ere, eskolatik irtendakoan edo asteburuetan. Horrez gain, bi neskame eta bi morroi zituzten. Ingurukoak izaten ziren normalean eta euren etxean egoten ziren bizitzen.

9. Zaldi-karroarekin barazkiak eta landareak saltzera

- **Erref**: BER-286/015
- **Iraupena**: 0:03:14. **Hasi**: 00:21:30. **Bukatu**: 00:24:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:
Zaldi-karroan eramaten zituzten barazkiak eta landareak saltzera. Soraluzen igande goizean izaten zen azoka. Jendea seietako mezara joaten zen eta gero azokara. Beraiek ordurako han egon behar! Larunbatetan Bergaran eta Oñatin. Oñatira bidean landareak saltzen zituzten. Eibarrera astean hiru bider joaten ziren. Eguenetan (ostegunetan) Elgoibarrera. Astelehena jai hartzen zuten, prestaketetarako. Lehenengo furgoneta ekarri zutenean, aurrerapen handia izan zen.

10. Zubikoako landareen barietateak estimuan; haziak kanpotik

- **Erref**: BER-286/017
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:25:50. **Bukatu**: 00:28:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Ekonomia eta industria » Kontrabandoa

Laburpena:
Jendea kalitate bila joaten zen beraiengana landarea erostera. Hazia kanpotik ekartzen zuten, Frantziatik, Italiatik, Holandatik... Gerraostean zaila zen aduanan ezer pasatzea eta kontrabandoan ibiltzen ziren, ezkutuan. Iparraldean senideak zituzten eta haien bitartez lortzen zituzten kontaktuak.

11. Hazien garrantzia

- **Erref**: BER-286/018
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:28:20. **Bukatu**: 00:30:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:
Kanpotik ekartzen zituzten landare haziak. Han ere denetarik zegoen, baina hazi batzuk hemengo lur eta klimarako aproposak ziren. Etxeko haziarekin landareak ateratzea ez zen hain erraza, jakin egin behar. Gerora asko ikasi ei du. Orduko hazi-etxe inportanteenak: Vilmorin eta Clause. Gaur egun Espainian delegazioa daukatela dio, baina garai batean ez zegoen halakorik.

12. Eibar, mugimendua zuen herria; azoka garrantzitsua

- **Erref**: BER-286/019
- **Iraupena**: 0:03:12. **Hasi**: 00:30:55. **Bukatu**: 00:34:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:
Garai batean Eibarkoa zen inguruetako azokarik garrantzitsuena. Ondarroatik egunero arrain freskoa eramaten zuten kamioian eta 6-7 emakumek saltzen zuten plazan. Industriak indarra zuen Eibarren eta inguruetako jendea hara joaten zen lanera. Eibarren baserri txikiak eta lur aldapatsuak zeudenez, bertakoek ez zeukaten baratzetik bizitzerik. Kanpoko jende ugari joaten zen plazara saltzera. Kortezubi inguruko baserritarrak Eibarren ostatu hartuta egoten ziren tomate sasoian, denboraldia bukatu arte.

13. Negutegiaren abantailak eta alde txarrak

- **Erref**: BER-286/020
- **Iraupena**: 0:02:56. **Hasi**: 00:34:07. **Bukatu**: 00:37:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Beste aurrerapen batzuk

Laburpena:
Negutegiak aurrerapen handia izan ziren. Jendeak uste du epelak direla, baina ez da hala. Han barruan ere izotza egiten du neguan. Euri eta haize hotzetik babesteko dira onak. Horrez gain, barruan euririk ez duenez egiten, lurra beti dago prest lanerako. Alde txarrak ere baditu, ordea: zomorroak eta bakteriak gehiago ugaltzen dira barruan.

14. Lurra azidotzea; zergatia eta konponbideak

- **Erref**: BER-286/021
- **Iraupena**: 0:02:19. **Hasi**: 00:37:03. **Bukatu**: 00:39:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:
Esaten dute negutegiko lurra azidotu egiten dela. Kanpoan ere gauza bera gertatzen da, lur berean barazki bera ereiten baduzu urtero. Kanpoan sasoiaren arabera ereiten duzu barazkia; negutegian, berriz, urte osoan erein dezakezu. Beti lur berean ereinez gero, azkenean barazkia ez da egiten. Ongarria botata, lurra aberastu daitekeela dio, baina bere ustez azkenerako gaixoak sortzen dira. Hori konpontzeko, lurra desinfektatu behar da. Ur baporea lur azpira sartuta egin zuen desinfektatzea bere lagun batek. Beste aukera: negutegia lekuz aldatu eta lur hari arnasa hartzen utzi.

15. Lurra lantzeko idiak eta zaldia

- **Erref**: BER-286/022
- **Iraupena**: 0:01:28. **Hasi**: 00:39:22. **Bukatu**: 00:40:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:
Idi onak izaten zituzten etxean, lurra goldatzeko. Zaldia azkarragoa izaten zen eta area edo tresna txikientzako zaldia erabiltzen zuten. Idiak motelago ibiltzen ziren eta, gainera, lurra zapaltzen zuten.

16. Barazkiak eta zerealak txandakatuta

- **Erref**: BER-286/024
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:40:55. **Bukatu**: 00:42:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:
Ortuan barazkiak txandaka landatzen zituzten, ez beti landare bera leku berean. Lau urteko zikloak. Hori egiteko, lur-sail handiak behar dira. Lur-sailen banaketa egokia zein izango litzatekeen. Zerealek lurra elikatzen dute; artoak, esaterako, nitrogenoa ematen dio lurrari.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-11-15

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com